

2021/06/02

ARABA EUSKARAZ EGUNA MARTXAN DUGU!

**EKAINAREN 20AN IZANGO DUGUN EKITALDI PROGRAMA
AURKEZTU DUGU. IZEN-EMATEA ZABALIK DAGO!**

Araba Euskaraz egunerako programa aurkeztu berri dugu. Bi gune nagusitan antolatuko dira ekintzak, euskararen plaza, Aldai eta Herriko plazaren eremuan, eta euskararen basoa, Lamuza parkean. Horrez gain, Araba Euskaraz denda, tonbola eta bertoko ekoizleen azoka ere antolatuko ditugu.

Bizi dugun osasun egoerara egokitutako ekitaldi sorta eskainiko da, toki kopuru mugatuekin, eta parte hartzeko beharrezkoa izango da aurretik izena ematea.

**programa
kontsultatu** 

izena eman 

